

1/13

*i*rizpena

Profesionaltasun-ziurtagirien eta Egiatagiri Partzial Metagarrien Euskal Erregistroa sortzen duen eta hura erregistratzeko eta haren gaineko agiriak egiteko prozedura ezartzen duen

Dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2013ko maiatzaren 29an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea



irizpena

01/13



I.- SARRERA

EMaiatzaren 8an Enplegu eta Gizarte Politiken Saileko idazki bat jaso genuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean. Bertan, Sailak *“Profesionaltasun-ziurtagirien eta Egiaztagiri Partzial Metagarrien Euskal Erregistroa sortzen duen eta hura erregistratzeko eta haren gaineko agiriak egiteko prozedura ezartzen duen Dekretu-proiektuari”* buruzko txostena eskatu zigun Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.b) artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Kontsultatu diguten lege-ekimenaren xedea Profesionaltasun-ziurtagirien eta Egiaztagiri Partzial Metagarrien Euskal Erregistroa sortzea eta izen-emateko zein haien gaineko agiriak egiteko prozedura arautzea da. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Prestakuntza alorreko Zuzendaritza eskudunera atxikitako Erregistro horren edukia Enplegurako Sistema Nazionalari jakinarazi beharko zaio, eta Lanbidek emandako profesionaltasun-ziurtagiriak eta egiaztagiri partzial metagarriak inskribatuko dira bertan; gainera, inskripzio horiek egiteko Erregistroan aurkeztu den dokumentazioa artxibatu eta gordeko da, baita ere.

Agiriaren kopia bat igorri zitzaion berehala Batzordeko Osoko Bilkurako kide guztiei euren proposamenak eta iritzia adieraz zitzaten eta ondoren horiek Lan-batzorde egokiari helarazi ahal izateko, hala agintzen baitu Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendurako Araudiak. 2013ko maiatzaren 22an Gizarte Garapenerako Batzordea bildu zen, eta bertan hartutako erabakiak oinarri hartuta, honako Irizpen-proiektua egin zen Batzordeak maiatzaren 29an egindako Osoko Bilkuran aurkezteko. Aho batez onetsi zuten.

II.- EDUKIA

“Profesionaltasun-ziurtagirien eta Egiaztagiri Partzial Metagarrien Euskal Erregistroa sortzen duen eta hura erregistratzeko eta haren gaineko agiriak egiteko prozedura ezartzen duen Dekretu-proiektuaren” testuak Hitzaurrea, 9 artikulua, hiru xedapen gehigarri eta bi azken xedapen ditu. Horien laburpena egingo dugu jarraian.

HITZAURREA

Enplegurako Ziurtagiriei eta Lanbide Heziketari buruzko estatuko araudia¹ bete eta garatuz, eta (lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruko lan-arloko legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruz Transferentzien Batzorde Mistoak 2010eko urriaren 28an hartutako Erabakia onesten duen azaroaren 9ko 289/2010 Dekretuari jarraiki, honako arau honen helburua Profesionaltasun-

¹ - 5/2002 Lege organikoa, ekainaren 19koa, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzkoa.

- 395/2007 Errege Dekretua, martxoaren 23koa, enplegurako lanbide-heziketaren azpi-sistema arautzen duena.

- 34/2008 Errege Dekretua, urtarrilaren 18koa, profesionaltasun-ziurtagiriak arautzen dituena.

-ziurtagirien eta Egiatagiri Partzial Metagarrien Euskal Erregistroa sortzea eta hura erregistratzeko eta haren gaineko agiriak egiteko prozedura ezartzea da.

Aipatutako erregistroa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan Enplegurako Heziketa arloan eskuduna den Zuzendaritzari atxikita dago. Hura da enplegurako heziketa arloan espedienteak kudeatzeaz eta profesionaltasun-ziurtagiriak eta egiaztagiri partzial metagarriak emateko eta erregistratzeko beharrezko jarduerak garatzeaz arduratzen den organoa.

Erregistro horren edukia Enplegurako Sistema Nazionalari jakinarazi beharko zaio, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako profesionaltasun-ziurtagiriak eta egiaztagiri partzial metagarriak inskribatuko dira bertan; gainera, inskripzio horiek egiteko Erregistroan aurkeztu den dokumentazioa artxibatu eta gordeko da, baita ere.

Arau horrek adieraziko du, baita ere, nortzuk eskatu ahal izango duten inskripzioa egiteko eta profesionaltasun-ziurtagiriak eta egiaztagiri partzial metagarriak emateko, guztia profesionaltasun-ziurtagiriak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuak xedatutakoari jarraiki.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Heziketa arloko Zuzendaritzari dagokio profesionaltasun-ziurtagiriak eta egiaztagiri partzial metagarriak inskribatzeko eta emateko prozedura izapidetzea, eta prozedura hori ebazteko zeregina, aldiz, zuzendari nagusiari dagokio.

XEDAPEN GORPUTZA

1. art. Xedea eta aplikazio-eremua
2. art. Izaera juridikoa eta adskripzioa
3. art. Erregistroaren edukia
4. art. Egitekoak
5. art. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak koordinatutako Enplegu Sistema Nazionaleko Erregistro Orokorrarekiko loturak
6. art. Profesionaltasun-ziurtagiri bat edo egiaztagiri partzial metagarri bat inskribatzeko zein emateko eskatu ahal izateko baldintzak
7. art. Profesionaltasun-ziurtagiriak eta egiaztagiri partzial metagarriak inskribatzeko eta emateko prozedura
8. art. Profesionaltasun-ziurtagiriak eta egiaztagiri partzial metagarriak ematea
9. art. Profesionaltasun-ziurtagiriak eta egiaztagiri partzial metagarriak entregatzea

III.- GOGOETA OROKORRAK

Profesionaltasun-ziurtagirien eta Egiatagiri Partzial Metagarrien Euskal Erregistroa sortzen duen eta hura erregistratzeko eta haren gaineko agiriak egiteko prozedura ezartzen duen Dekretu-proiektua aurkeztu zaigu azter dezagun. Dekretu-proiektu hori Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 8.1 artikulua betez egin da, eta artikulua horrek honakoa xedatzen du: “lanbide-heziketako tituluek eta profesionaltasun-ziurtagiriek egiaztagirioak lortu dituzten pertsonen kualifikazio profesionalak egiaztatzen dituzte, ofizialak dira, estatu osoan dute balioa, eta eskudun Administrazioek ematen dituzte”.

Uste dugu arau hori egokia dela, enplegurako prestakuntzaren azpi-sistema arautzen duen estatuko araudiak (martxoaren 23ko 395/2007 ED) zein Profesionaltasun-ziurtagiriek eurek (urtarrilaren 18ko 34/2008 ED eta haren aldaketak, azkena martxoaren 15eko 189/2013 ED) Autonomia Erkidegoei emandako aginduari erantzuten baitio. Gure kasuan, 2011ko urtarrilean enplegurako politika aktiboak EAERI eskualdatu zitzaizkionetik aurrera.

Profesionaltasun-ziurtagiri bat edo Egiatagiri Partzial Metagarri bat izatea, titulu akademiko bat izatea bezalaxe, oinarri-oinarrizkoa da interesdun langileen euren enplegarritasuna ebazteko, beraz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zuzendaritza Nagusiari aurreikusitako prozeduren arauketa azkartzeko eskatu behar diogu, horrela interesdun pertsonen egiaztagirioak lehenbailehen eskatu eta lan-merkatuan erabili ahal izateko.

01/13 

IV.- GOGOETA ESPEZIFIKOA

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Xedapen hori jarraian adieraziko dugun moduan idazteko gomendatzen dugu, profesionaltasun-ziurtagiriak eta egiaztagiri partzial metagarriak ematea instantzia ezberdinei baitagokie:

“Profesionaltasun-ziurtagiriak **enplegurako heziketa arloan eskuduna den Eusko Jaurlaritzaren sailak** emango ditu eta egiaztagiri partzial metagarriak, **aldiz**, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza arloko eskudun Sailak agiri biak onartuko ditu, eta lanbide-heziketako tituluak xedatzen dituzten Errege Dekretuei jarraiki, egiaztagiri horiek egoki diren modulu profesionalak baliozkotzeko balioko diete hala eskatzen dutenei”.

V.- ONDORIOA

Euskadiko EGABek egoki deritzo “Profesionaltasun-ziurtagirien eta Egiaztagiri Partzial Metagarrien Euskal Erregistroa sortzen duen eta hura erregistratzeko eta haren gaineko agiriak egiteko prozedura ezartzen duen Dekretu-proiektua” kontsulta-organo honek egindako gogoetei jarraiki izapidetzeari.

Bilbon, 2013ko maiatzaren 29an

OE Presidentea
Juan María Otaegui Murua

Idazkari nagusia
Francisco José Huidobro Burgos